

## PRENTSA OHARRA

### **Guggenheim Bilbao Museoak ezohiko ekitaldi bat iragarri du urrirako, hiritarrek in batera bere XX. Urteurrena ospatzeko**

Guggenheim Bilbao Museoak gaur eman du ezohiko ekitaldi horren berri, Museoaren inaugurazioaren XX. Urteurrenaren ospakizun gisa. *Reflections* doako ikuskizun irekia da, Bilboko Udaletxearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Iberdrolaren laguntza jaso duena. Okasiorako propio diseinatua, eskala handiko mapaketa-proiektzioa izango da *Reflections*, tokiko publikoari eta bisitariei zentzumen-esperientzia paregabea biziarazteko jaioa eta ospakizun-urteari amaiera bikaina emateko sortua; izan ere, urte honetan erakusketa eta kultura-jarduera bereziek osatutako programa burutzen ari da Museoa.

Urriaren 11tik 14ra, Frank Gehry-ren eraikin ikonikoa esku-hartze artistiko izugarri bilakatuko da, Tony saria irabazi duten 59 Productions konpainiako bideo-sortzaileei esker. Titanioaren forma organikoak eta Museoaren beirazko Atrio dotorea mihise gisa baliatuko dira, 20 emanalditan 200.000 pertsona baino gehiagok dohainik ikusi ahal izango duten mapaketa-espektakulu batean.

“Zorizko kurbak argia atzemateko diseinatu dira”; hala baieztatu zuen Frank Gehryk berak Guggenheim Bilbao Museoko eraikinaren inguruan.

Punta-puntako teknologia erabilia, 20 minutu luze den eta jatorrizko soinu-banda duen animazioak Bilboko historiaren eta sormenaren bi hamarkada aztertuko ditu. Historia aberats hori inspiraziotzat hartuta, eta Gehryren diseinu ameslarian eta arkitektoak berak argian, testuran eta mugimenduan erakutsitako interes jarraituan oinarrituta, proiektioek eraldatu egingo dute obra arkitektoniko liluragarria, eta argizko eta kolorezko ospakizun bat gorpuztuko dute: hiritarrentzako eta Bilbora datozenentzako ezin galduzko espektakulua izango da.

*Reflections* 59 Productions konpainiako ekipoaren azken lana da. Hainbat sari jaso ditu konpainiak eta 2012an Londreseko Joko Olinpikoen inaugurazio-ekitaldiko bideoaren diseinuaren arduradun izan zen. Munduko toki enblematikoenetarako obra ikusgarriak ekoizten hamarkada bateko esperientzia jorratu ondoren, Londreseko Antzoki Nazionalerako, Royal Opera House antzokirako, Londreseko Metropolitan Opera antzokirako edo Salzburgoko Jaialdirako kasu, 59 Productions konpainia ospetsua da azken aldian mapaketa baliatuz egindako arte publikoko obra ikusgarriengatik. Nazioarteko eraikin ikonikoetan egindako mapaketak dira: Sydneyko Operan, Edinburgoko Gazteluan, Hampton Court Palace jauregian eta New Yorkeko Nazio Batuen eraikinean, adibidez.

Leo Warner 59 Productions etxeko zuzendari eta fundatzailearen adierazpenak dira ondorengoak: “Ezohiko enkargua da hau —Bilboko hiri apartaren bilakaeran hain zeresan nabarmena izan duen eraikinaren eta instituzioaren ospakizuna—, gure orain arteko proiektu interesgarrienetako bat, ezbaierik gabe. Gehryren eraikin ikonikoak erronka teknikoak eta sorkuntzarako aukerak eskaintzen dizkigu. Orain arte, proiektioak baliatuta gauzatutako arte-espektakuluetako sorkuntzan, ez diegu halako erronkei aurre egin. Soinua, musika, argia eta proiektioak erabiliko ditugu, eraikina bera protagonista duen pieza paregabea osatzeko”.

Bere aldetik, Juan Ignacio Vidartek, Guggenheim Bilbao Museoko Zuzendari Nagusiak, hurrengo aipatu du: “Guretat oso garrantzitsua zen gure XX. Urteurrena ospatzeko berealdiko zerbait asmatzea eta gure ingurune gertuko pertsonekin partekatu ahal izatea, asko baitaukagu beraiei eskertzeko. Denon artean egin dugu posible Bilboren eraldaketa izugarria, eta munduari erakutsi diogu arteak dena aldatzeko gaitasuna duela. *Reflections* esperientzia errepikaezin eta ahaztezina izango da”.

### ***Reflections* fitxa teknikoa Guggenheim Bilbao Museoaren XX. Urteurrenaren ospakizuna**

Datak:	2017ko urriak 11, 12, 13 eta 14
Ordutegia:	20:30–23:30 (baieztatzeke)
Publikoaren kokapena:	Unibertsitateen etorbidea eta inguruak
Emanaldiaren gutxi gorabeherako iraupena:	20 minutu (baieztatzeke)
Sarrera libre eta doakoa	

Lan-taldea: Proiektuaren zuzendaria: Leo Warner, ekoizleak: Ollie Hester eta Rebecca Collis, bideoaren diseinua: Raphael Pimlott, argiztapenaren diseinua: Ben Percy, konpositorea: Nick Powell, animazioa: Aaron Brady, Jarek Radecki eta Nicol Scott, diseinu-laguntzaileak: Matthew Taylor, Jose Macena, arkitektura-diseinua: Marzio Scottoni, produkzio-zuzendaria: James Roxburgh, laguntzaile teknikoa: Maximilien Spielbichler, laguntzaile teknikoa: Iain Syme.

### **Guggenheim Bilbao Museoa**

2017ko urrian 20 urte beteko dira Guggenheim Bilbao Museoak lehen aldiz bere ateak publikoari ireki zizkionetik; une horretan, proiektu aitzindari bat errealitate bilakatu zen, Euskal instituzioen eta Solomon R. Guggenheim Fundazioaren batasun estrategikoari esker posible izan zena. Guggenheim Bilbao Museoa ohiz kanpoko proiektua da bere sorreratik bertatik, bai bere berezitasunagatik, bai eta nazioarteko bokazio eta anbizio artistikoagatik ere.

Inaugurazioaren ondoren, bi hamarkada beranduago, Museoak etengabe erakartzen ditu bisitariak, eta urtero-urtero Bilboko biztanleria hirukoiztu egiten dute. Museoaren programazioaren garrantziaren, anbizioaren eta dinamismoaren ondorio da erakarpen hori. Urtean hainbatetan, Museoak eraldatu egiten ditu bere espazioak, bisitariari esperientzia paregabe eta errepikaezinak helarazteko, nazioartean erreferentzia diren erakusketa eta artisten bitartez. Azken horiek kalitatean oinarritzen den muga geografikorik gabeko programazioaren ondorio dira, eta haien bitartez obraren aurkezpenean identitate propioaren bila ari da beti Museoa, errepikapenik gabe.

Museoaren izpiritu egonezin eta ekintzaile horri esker, 165 erakusketa gauzatu dira 1997az geroztik gaur arte —aldi baterako 95 erakusketa eta Bilduma Iraunkorrek 70 aurkezpen—; beraz, gutxi gorabehera sei astero behin erakustaldi berri bat estreinatu da. Esfortzu horren ondorioz, ia 20 milioi pertsona gerturatu dira Museora; horietatik bi heren atzerritarrak dira, eta hamarretik bederatzi Euskaditik kanpo datoz, turismoan tradizioz izan ez duen hiri bateraino.

Guggenheim Bilbao Museoak Bilbori egin dion ekarpena ez dagokio soilik kultura-garapenari, baina baita inguruko hirigintza-, ekonomia- eta arkitektura-garapenei ere, nazioartean “Bilbo efektua” edo “Guggenheim efektua” bezala ezagutu direnei bide emanez.

2017ko bigarren erdian, Museoko bisitariak hurrengo erakusketez gozatu ahal izango dute *Bill Viola: atzera begirakoa*, *Georg Baselitz. Heroiak*, *Anni Albers: ikusmena ukitu*, *David Hockney: 82 erretratu eta natura hil bat* eta *Artea eta espazioa*.

### 59 Productions

Hainbat sari jasotako artista-konpainia da 59 Productions, eta Londreseko 2012ko Olinpiar Jokoetako inaugurazio-ekitaldiko bideoaren diseinuaren arduradun izan zen. Horrekin batera, War Horse nazioarteko espektakulua eta David Bowieren erakusketaren diseinua eta sormenezko zuzendaritza ere burutu ditu, Christopher Wheeldonen *Amerikar bat Parisen* antzerkiaren moldaketa txalotuaren bideoaren diseinuarekin batera; lan horregatik Tony sari bat jaso zuen 2015ean.

Leo Warner, Mark Grimmer, Lysander Ashton eta Richard Slaney-ren zuzendaritzapean, 59 Productions etxea espezialista da eszenografietan eta zuzeneko ekitaldietan, mundu mailan. Abangoardiako lantaldea osatzen dute, eta diziplina desberdinetako anbizio handiko proiektuak errealitate bilakatzeko sormenezko ideia eta teknikak erabiltzen dituzte: arkitektura-mapaketetatik hasita erakusketen diseinura, alegiazko errealitateko esperientzietatik ekitaldietara, antzerkirako eszenografietatik aholkularitza teknikora.

2017az geroztik, 59 Productions konpainiak bere antzezlan propioak ekoizteari ekin dio; horrela, HOME eta Lyric Hammersmith-en eskutik beren lehen produkzio globala aurkeztu dute: Paul Austerren *Kristalezko hiria*. *Daily Telegraph* egunkariak "nahitaezkoztat" kalifikatu du lana eta *The Independent* egunkariarentzat aldiz, "aparteko bideo-diseinuak dauzka".

59 Productions Edinburgoko Nazioarteko Jaialdiko artista bazkidea da 2018ra arte, eta *Bloom* ekimenarekin itzuliko da 2017ko udan, jaialdiaren 70. urteurrena ospatzeko ekitaldia denarekin, hain zuzen. *Deep Time*, *The Harmonium Project* eta *Standard Life Opening Event* lanekin erdietsitako arrakastarekin jarraitu nahi dute. Egungo proiektu berehalakoenen artean, *Life of Galileo* (Young Vic), *Sukanya* (Royal Festival Hall), Oslo (Lincoln Center eta Antzoki Nazionala), *The (R)evolution of Steve Jobs* (Santa Fe-ko Opera) eta *Marnie* (The Metropolitan Opera eta English National Opera) aurki daitezke.

Bilbo, 2017ko ekainaren 23a